

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Segurtasun dispositiboa aktibatu da gaur arratsaldean abiatu den lehendabiziko Xabierraldirako

*Foruzaingoko agenteek eta Babes Zibil, Osasun eta Obra Publikoetako pertsonalak erromesen segurtasuna bermatzeko lan egingo dute, eta Xabierrera iristeko Liedenatik irten eta Zangozan barna ibiltzea gomendatu diete*

Osteguna, 2019.eko martxoak 7

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako Departamentuak segurtasun dispositibo integrala aurreikusi du heldu den asteburuan eta hurrengoan antolatuko diren Xabierraldietarako. Foruzaingoaren dispositiboa gaur arratsaldean hasiko da Nafarroako Erriberatik Xabierrera abiatuko den lehendabiziko erromesaldiarekin.

Hauexek izango dira Foruzaingoko agenteen lanaren helburu nagusiak: errepidean zein pista eta bideetan barna [ibili](#) edo [zirkulatzen](#) duten erromesen segurtasuna bermatzea; zenbait errepidetako bidegurutzeetan trafikoa zaindu eta erregulatzea, eta zirkulazioa kontrolatzea, ibilgailuen joan-etorriak eta bide-segurtasuna bermatu ahal izateko.

Horretarako, Foruzaingoak Bide-Segurtasunaren Dibisioko agenteak izanen ditu, baita Zangozako Komisariako Herritarren Babes eta Arretarako Taldeetatik eta Tuter eta Iruñeko komisariatako Ingurumenaren Babes eta Arretarako Taldeetatik etorritako agenteak ere.

Gainera, Foruzaingoak radarrak jarriko ditu ibilgailuen abiadura zaintzeko eta alkoholemia eta drogen aurkako kontrol prebentiboak egingen ditu. Nafarroako Gobernuaren helikoptero batek ere parte hartuko du dispositibo honetan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak igande eta festa-egunetako ohiko guardiako zerbitzua mantenduko du Zangozako osasun zentroan, baina DYako eta Gurutze Gorriko boluntarioekin indartuko da, izan ere, gidariz hornituriko ibilgailu bat jarriko dute osasun zentroaren zerbitzura osasun arretak arintasun osoz egin ahal izateko.

Gainera, Obra Publikoetako Zuzendaritza Nagusiak seinale gehiago jarri ditu ibilgailu gehien biltzen duten errepideetan erromesak igarotzen ari direla jakinarazteko. Azkenik, Nafarroako Errepide-Segurtasunerako Estrategiak berriazko gomendioak ematen dizkie Xabierrera oinez zein bizikletaz joaten diren guztiei. Foruzaingotik gogoratu diete Xabierraldietan gauetz parte hartu behar dutenei arropa erreflektantea erabili behar dutela.

### Xabierraldia Erriberatik eta Iruñerritik

Foruzaingoak gogoratu die erromesei aintzakotzat hartu behar

dituztela une oro antolatzaileek, Babes Zibilak, Nafarroako Gobernuko Errepideen Kontserbaziorako Zerbitzuak zein Pirinioetako Autobidearen (A-21) arduradunek jarritako kartel eta seinalen jarraibideak.

Tuterako komisariako Ingurumenaren Babes eta Arretarako Taldea arduratuko da Erriberatik irten eta San Isidro del Pinar, Peña, Gabarderal, Galipentzu eta Zangozan barna ibiltzean sor daitezkeen larrialdiak zaindu, kontrolatu eta artatzeaz. Aragoi ibaiaren eskuinaldeko bidearen egoera, Galipentzutik Murillo El Frutoraino, guztiz egokia da oraingoan, aurreko urteetan egoera txarrean egon arren.

Iruñeritik abiatzen direnei, Foruzaingoak bidea Noainen hasia gomendatu die hiriburuko trafiko trinkoa saihesteko. Hala ere, nork bere etxetik abiatu nahi izanez gero, ibilbide hau erabiltzea gomendatu du: Iruñetik Sadar kalean barna irten, UNEDen zentroaren ondotik igaro eta Taxoareko errepidean eta herri honetako baratze-eremuan barna ibiltzea, Noaingo bidegurutzeraino.

Gainera, berritasun gisa, aurtengo Xabierraldietan, Xabierrera iristeko, Liedenatik irten eta Zangozan barna ibiltzea gomendatu dute. Helburua erromesen segurtasuna areagotu eta bi herrien arteko ibilgailuen joan-etorriak saihestea da, izan ere, herri horietan osasun arretak eta larrialdiak finkatuko dira.

### **Trafiko murrizketak eta aparkalekuak**

Xabierraldietan erabili ohi diren errepideetan barna ibiltzen diren ibilgailuek honako trafiko murrizketa hauek kontuan hartu beharko dituzte. Zirkulazioa ibilgailu mota guztietarako etengo da NA-5410 errepidean, Zangozako Yamaguchi Hoteletik Xabierreraino.

Xabierrera iristen diren autobusak eremu hauetan aparkatu beharko dira: NA-5410 errepidean (Zangoza-Esa), Banderen biribilgunetik Xabierreko Elizbarrutiko Zentroraino, edo NA-5411 errepidean, Xabierreko saihesbidean, Banderen biribilgunetik Misiolarien biribilguneraino. NA-5410 eta NA-5411 errepideetan aparkaturiko autobusak bide berean barna abiatuko dira, Zangozaranzko noranzkoan. Elizbarrutiko Zentroaren erdialdeko lautadan aparkatuta daudenak NA-5410 errepidean barna irtengo dira, Esaranzko noranzkoan.

Autoetarako aparkalekuak Xabierreko Elizbarrutiko Zentroan prestatutako eremuan, Xabierreko saihesbidean eta Xabierren prestatutako eremuetan eta Banderen eremuan finkatuko dira.